

ERREPORTAJEA ELURRAZ GOZATZEKO MODU DESBERDINAK · GEHIGARRIA JESUS GABILONDORI
ELKARRIZKETA · KIROLA JAVIER ARRIOLA, ARRIOLA IV. PILOTARIA HIL DA

BARREn

ASTEKARIA



Elurra: dibertsio zuria

"ELURRA BERE AROAN ASEGARRI, HANDIK KANPO GOSEGARRI" (esaera zaharra)

40 URTE

40 HISTORIO

ELGOIBARKO



1 Elgoibarko Izarraren gau-eskola

Aurreko astean esan genizuen 56an zabaldutako gau-eskolak atek itxi zituela 58an. 60an bigarren ahalegina egin zen baina, kasu honetan ere, ez zen luzarorako izan. Izan ere, Guardia Zibilak gau-eskolako irakaslea zen Deun Oliden zumaiarra detenitu eta kartzelaratu zuen, eta eskolak bertan behera geratu ziren.

Aurreko bi ahaleginetan kale egin eta gero, 1964an Felix Etxeberria 15-20 urte bitarteko gazteekin hasi zen. Bere esanetan, *"eskolak baino gehixao billerak izaten zian. Zeruko Argia eta Anaitasuna hartu eta artikulu onentsuenen komentariuak egitten genittun"*.

1966an, berriz, Elgoibarko Izarrak helduen euskalduntze-alfabetatzeari ekin zion. Felix Etxeberria zen irakaslea eta Marisabel Mujika, Maite Ajuria, Marisabel Arakistain eta Mariasun Uriarte zituen aldamean laguntzeko. Marisabel Mujikak eta Maitek esan digutenez, *"gu oso gaziak giñan eta oso jende nagusixa zakaun euskeria ikasten, nagusixa eta inportantia"*. Eusebio Esnaola medikua, Altuna notarioa eta Juan Goirizelaia udaleko abokatua tartean.

Oso kondizio txarretan ematen zituzten eskolak. Ez zuten ez metodologiarik, ez eta gela egokirik. Ikasleek ez zuten ordaintzen euskara ikasteagatik eta irakasleek ere ez zuten kobratzen. Felixek dioen moduan, *"euskerion egoeriagatik kezkatuta geundelako entaten genittun klasiak, erderiak ez ittotzeko"*.

Gainera, gau-eskolak klandestinoak ziren, baimenik eskatu gabe ematen ziren 75ean Franco hil zen arte. Baina Franco hil ostean gauzak dezente aldatu ziren Euskal Herrian, eta gau-eskoletan ere igarri zen. Baina aldaketa hauek datorren astean kontatuko dizkizuegu.

Felix Etxeberria eta hnanol Larrañaga



Hurrengoa?

Amets gaiztoa zela pentsatu nuen hasieran. Ezin nuen sinistu irratiak zioena. Hotzikara, haserre eta beldurra. Zergatik itxi nahi dute Egunkaria? Zer dago bota dituzte gezur guztien atzean? Noraino iritsiko dira? Zein izango da hurrengoa?

Euskaraz daukagun egunkari bakarrak min egin dio norbaiti: iritzi eta mota ezberdineko euskaltzaleen bilgunea da, euskal kultura eta euskaltasunaren leiho eta aldarria. Gezur nazkagarriak jaurtiko dituzte orain haren izena zikintzeko. Eta tristeena da batzuk sinistu ere egingo dituztela. Ikusita daukagu pelikula.

Komunikabideen gizartean bizi gara. Izugarria da hedabideek duten garrantzia: iritzia sortzen dute eta azken finean irakurleen pentsaeran eragina dute. Kontu jakina da. Horregatik sortu zen Egunkaria duela hamairu urte, euskarazko egunkari bakarra, berriak Euskal Herriko ikuspegitik ematen dituen. Eta horregatik itxi nahi dute, euskal kutsua duen guztia ezabatu nahi duten moduan. Guztiok txikiak, bibotedunak eta espainiarrak izan gaitzen. Beldurrezko filma dirudi.

Herritik sortutako ekimena da Euskaldunon Egunkaria. Eta ez da epaile baten aginduz amaituko. Euskarak bere egunkaria behar duelako, irakurleok eskatzen dugulako, sarritan aipatzen den pentsamendu bakarrean ez dugulako sinisten, mundua kolorez josia dagoelako, kolore anitzak maite ditugulako, dena ez delako zuria ala beltza.

VIontse Arregi

Kexak	5
motz motz	0
gehigarria	13
kiRolAk	1
aGenda	4

JOAN ZEN ASTEKO "TXALOAK" SAILEKO ESKAKIZUNARI

Motzean botako ditut sakonean aztertzeke diren filosofiak, ohiturak edota printzipioak. Irakurri nuenean horrelako sentsazio arraro bat sentitu nuen: Hauek ez dute ulertzen edo errealtatea aldatzeko azpijoko maltzurra erabiltzen dute horrelako idatziekin. Oker ez banago Udalak badu bere "Elgoibarko Haur Eskola" (herriarena, euskalduna, hezitzailea...) bere garaian ere Udalarentzat apustua izan zena. Nire ustez eta Kultur Etxeko sotoan egin duten erakusketan ikusi ahal izan dugun bezala, ibilbide garrantzitsua erakutsi dute, duintasun handiz egindakoa, beraz ez damutzekoa. Hau esanda gero, hauek dira nire galdera batzuk:

-Ez al zarete eskola pribatua? Gurasoen artean dena ordaintzeko prest zaudeten horietakoak? Publikoa hitza erabili ere ezin duzuenetarikoa? Ba jakin ezazue Udala administrazio Publikoa dela, eta baloratu eta aprobetxatu dezagun denen diruarekin eginga dagoena.

A.E.A.
N.A.N. 15.369.102L

ARGMJ BEHARREKOAK

Lehenengo ostiralean ezarri zenuten portada dela-eta, zuzenketa bat egin behar dela uste dugu Sinuose kolektiboko partaideok. Ana Orozko artista euskaldunak ezarri berri duen erakusketa, Sinuose kolektiboak egindako erakusketa bezala izenburutzen duzue zuen portadan. Merezki ez dugun meriturik jaso nahi ez dugunez, argi eta garbi utzi behar da, guk ez dugula erakusketa horrekin zerikusirik, behintzat kolektibo bezala, guk geuk aurtengo ekintza 28rako prestatu baitugu. Artistak berak prestatu du dena eta geuk programatu besterik ez dugu egin, Ongarrik edo beste kolektiboren batek programatzen duen bezala. Argi gelditu delakoan, eskerrak ezarritako interesagatik.

Sinuose kolektiboa

ASKI DA. EMAN URRATSA !!

Oinarritzko eskubide demokratikoak ukatzen zaizkigu euskal herritarroi. Ezker abertzalearen erakundeak legez kanpo uztea, manifestari jipoituak eta epaituak, dozenaka atxilotu astero polizia espainarra eta "gure" Ertzaintzaren eskutik, eta abar luze bat. Oraingoan, euskaraz egiten den egunkari bakarrari tokatu zaio. Aski da!

Eta hau dana Euskal Autonomi Erkidegoan 25 urtez gehiengoan izan duen eskuineko nazionalismoak espainolisten asimilazio politikarekin bat egiten duen bitartean. Badakigu gauzak inoiz ez duela errazak izan. Baina euskal herritarroi dagozkigun eskubideak berreskuratu nahi baditugu, antolatzeke beharra dugu. Beraz, Autodeterminazioaren aldekoa bazara, Udalbiltza begi onez ikusten baduzu, gatazkari konponbide demokratiko bat bilatzearen aldekoa bazara, eta ezkertiarra eta euskaltzalea sentitzen bazara, eman urratsa!! Plataforma zabal bat sortzea proposatzen dugu. Eta horretarako Astearte honetan, hilak 25, 19,30etan bigarren bilera ospatuko da Kultur Etxean. Gonbidatuta zaude.

Abertzaleen Plataforma berria sortzeko taldea-ren izenean
Juan Karlos Marcos - 15.377.582 N

Urruzunoren begi ezkutua Lainoen gainean



Niri txikitzen lainoen gainean etzanda egotea gustatzen zitzaidan. Etxeko balkoitik salto egin eta besoak mugituz esnegaineko hodei artera iristea.

Beti oskarbi zegoen leku bakarra zelako. Han inoiz euririk egiten ez zuelako. Baina, batez ere, jende guztiak ezinezkoa zela esaten zidalako. Ezjakinak! Lainoen gainean etzanez gero lurrera jausten zela esaten ez zidaten ba!

Orain pixka bat handiagoa naiz eta gauza desberdinak desio ditut, nahiz eta oraindik, noizean behin, etxeko balkoitik salto egin eta hodeietako lagun zaharrak bisitatzen ditudan... Batzuetan, bi mutil batera desio ditut. Bestetan, bertsolari izan nahi dut, nahiz eta errima egokirik ez aurkitu; edo idazle, nahiz eta idazteko arrazoirik ez topatu; edo artzain; nahiz eta ardiaren eta ahuntzaren arteko ezberdintasuna zein den ongiegi ez jakin; edo... ibiltari, nahiz eta basaulkitik jaikitzeke gogo handiegirik izaten ez dudana.

Eta askotan... askotan ez dakit zer nahi dudana. Baina orduan, laino baten gainean etzan eta irribarre egiten diot zero oskarbiari, bai baitakit ezin nahi handitzen duela, baina baita nahiak ezina txikitzen duela ere; askok hodeien gainean etzatea ezinezkoa dela pentsatzen jarraituko duten arren...

Uxue Alberdi

ASTEKARIA BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12

Publizitatea:
x 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila:
barren@topagunea.com
ARGITAFATZALEA
=:.100inrko lzar

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORINATZAILEA Ainhoa Andonegi ZUZENDARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Aniaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRATZIOA Amaia Rodrigex GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Edure Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRINATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.100 ale LEGE GORDMLUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO AAAAAA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



kutxa
zumesker

1DANOBAT
#0.011110. NEORMIENTA

5>GOITI
GRUPO DANORAT

T, ARTA



4. Emakume batek jakinarazi digunez, Madalako parkean dagoen ura hartzeko aparailuak, urtebete inguru darama puskatuta: "Loteria saltzen duten kioskoaren alboan dagoen ura hartzeko aparailua ez dabil, eta kalea garbitu behar dutenean, beste leku batzuetatik ekarri behar izaten dute ura. Kale guztia tuboz eta mangeraz beteta egoten da, eta gainera, egunen baten sute bat edo beste edozer gertatuko balitz, denbora mordoia galduko litzateke ura Madalaraino ekartzen. Lehenbailehen konpondu beharra dago".



San Inazio Kaleko bizilagun batek, inguruko tabernako garbitzaileak oso ordu txarretan botatzen dituela botilak kontenedorera azaldu digu: "Badakigu botilak birziklatzera botatzea taberna guztien lana dela, baina askotan goizeko 6:30etan botatzen dituzte botilak. Taberna izanik, botila ugari bota behar izaten dituzte, eta zarata handia ateratzen dute. Ahal bada behintzat, lan hori beste orduren baten egitea eskatuko nioke".



• Herritar batek azaldu digunez, Anbulatorio aurreko espaloian oso koska arriskutsua dago: "Anbulatorio aurreko espaloian dagoen koskarekin estropozu egin nuen, eta ia lurrera erori nintzen. Koska oso arriskutsua dago bertan, batez ere, ilun dagoenean. Argi gutxiko ingurunea da hau, eta gauez, koska hori ikusi ere, ez da egiten. Jende ugari egin du estropozu bertan, eta zerbait larriagoa gertatu baino lehen konpontzea komeni da".



• Ubitarte kalean bizi den gazte batek honako kexa bidali digu: "Ubitarte kaletik Trenbide kalera kotxez irteteko derrigortuta gaude eskumarantz hartzera, baina gidari asko dago kasurik egin ez, eta ezkererantz ere hartzen duena. Makina bat txapa kolpe egon da hau dela-eta. Noiz hasiko da jendea seinaleari kasu egiten? Txapa kolpea beharrean, zerbait grabeagoa pasatzen denean akaso?"



Barrak, Birrak eta Barreak

Elurraz

modu

Garai batean oso jende gutxi joaten zen eskiatzera. Kirol garestia zen, eta gubci balzuk bakarrik zeukaten eskiaizera joateko aukera. Elurra mendi puntan ikusi, eta ausariak mendi gailurrera igotzen ziren eituraian ibiltzera, eta beste batzuk leihotik ikustearekin konformatu behar zuten. Gaur egun, ordea, elurraz gozatzeko beste modu batzuk daude. Urteak pasalu ahala, gauzak asko aldatu dira, eta gaur egun gutxi batzuk baino anik dira esidatzera joaten ez direnak. Elgoibarren eskiatzera joateko zafetasun handia dago, eta elur denboraldia hasten den momentutik, astebururo joasen da. Hala ere, elur moduak asko dira. Toki eta eskiatzeko modu desberdinak daude. Esidatzera joateko, beste modalitate batzuk aritzen diren lau lagun ekarri ditugu Barren-era. Gotzon Arrieta, Arkaitz Irureta, Manex San Martin eta Alberto Zelaiak, elurretan izan dituzten esperientziak kontatu dizkigute.

11.

441

BIG-FOOT

Ingelesezko hitz honek, euskaraz "oin handia" esan nahi du. Hauxe da eskiaren eboluzioak eman duen azken modalitatea. 70 eta 100 zentimetro artean neurtzen dute eski txiki hauek. Eski tradizionalak baino zabalagoak dira, eta oin handi baten forma daukate. Oraindik jende gutxi ikusten da honelako eskiekin, baina gauza berriak probatzea gustuko dutenak ere badira. Horietako bat dugu Gotzon Arrieta elgoibartarra. Gotzon Arrieta eski alpinoa egiten hasi zen, baina beti gustatu izan zaio gauza berriak probatzea. Honela, duela hiru urte, eski txikiak probatu zituen: "Kapritxo bat izan zan. Jendia gauza oso politxak eitzen ikusten naban eski txiki hoiekin, eta inbidixia ematen zian".

Eski txiki hauek oso erraz menperatzen dira, baina txikiagoak izanik, egonkortasuna

mantentzea zailagoa da. Gotzonek esan digunez, irristatzearen oso antzerakoa da: "Patinaje ikastaro batzuk ein nitxun, eta oso antzerakua da. Bastoirik ere, ez da erabiltzen, gorputzan mugimenduakin eitzen da dana". Eski tradizionalarekin konparatuta, erraztasun batzuk eskaintzen ditu eski txikiak: "jiruak ematia erretzaua da, motzauak dia, eta erretz kontrolatzen dia. Edozein leku txikitatik sartzeko aukeria ematen dabe". Hala ere, zailtasun batzuk ere baditu: "Ekilibrixua mantentzia askoz zaila da, eta tontor txiki guztixak gehixoa igartzen dia".

Gotzon Arrietak gauza asko ikasi ditu eski txikiekin: "Ez dot sekula eski ikastarorik ein, eta gauza asko zuzendu biharra dakat. Eski txikixekin gauza asko hobetu ditzut, baina aurtan aspaldiko partez eski luziak hartu ditzut, eta berriro hauekin ibiltzeko asmua



Gotzon Arrieta

dakat. Pista kanpotik ibiltzia asko gustatzen jata, eta eski luziak horretarako aukera haundixaua ematen dau". Hala ere, bi modalitateak uztartuko dituela aipatu digu: "Eski txikixeri ez diet ondiokan errendimendu guztixa atera, eta ez ditzut baztartuko. Aurrerantzian snow-a probatzia ere gustauko litzaidake".



desberdinak

IRAIASIA10 ESICA

Alberto Zelaia duela 10 urte inguru hasi zen eskiatzen. Berak esan digun Aloduan, egin behar ez dena egiten hasi zen: "Eskixak erosi eta mendixak igotzen hasi nitzan". Alberto Zelaia betidanik ibili izan da mendian, eta neguan gailurrera igotzeko zailtasunak zituen: "Elurretan ibiltzea oso zaila da. Hankak elur barruraino sartzen zaizkizu, eta denbora asko galtzen da mendira igotzen. Aneto igotzen ari ginen negu baten, eskixekin igotzen ari zan tipo batek aurria hartu zigun, eta holaxe erabaki gendun eskixak erostia".


Pirinioetara joaten dira normalean, eta gehien gustatu zaion mendia Aneto izan dela, kontatu digu Albertok: "Mendi politx asko daude pirineuetan, baina eskixekin eitzeko Aneto oso ondo dao. 3.400 metro inguru dauzka mendia honek, eta 6 ordu inguru eman genituen gora igotzen, baina mendixa apur bat ezagututa, erraz eitzen da.". Trabesiako eskia

egiteko, mendia oso ondo ezagutzea da garrantzitsuena: "Fisikoki oso ondo egon bihar da, baina hori ez da nahikua. Mendixa ezagutu ein bihar da, eta elurretan ibiltzen ere, jakin ein bihar da. Mendixa berez, ez da arriskutsua, baina norberak ez badaki nola ibili, arriskutsu bihurtu leike. Beldurrik ez dot sekula pasau, ez dogu inungo sustorik euki. Suerte handixa euki dogu".

Trabesiako eskiaren gozamenak ere, azaldu dizkigu Alberto Zelaiak: "Mendixan

eskixekin ibiltzia kristona da, elur oso ona egoten da normalian eta trabesiako eskixan sekulako askatasunakin jaitsi leike bakoitzak nahi daban lekutik". Hala ere, askatasun honek baditu arrisku batzuk: "Batzutan jaisten hasi, eta mendixa amaitxu izan jaku. Bueltia eman eta jaisteko beste bideren bat bilau bihar izaten da orduan. Kasu batzutan denbora asko galdu izan dogu".

Alberto Zelaiari eski alpinoa egitea ere gustatzen zaio, eta Luz Ardiden da gehien gustatzen zaion eski estazioa: "Mendixan ibiltzen hasi ginanian, eskiatzeko ideiarik ere ez geneukala konturatu ginen, eta teknika apur bat hartzeko, eski alpinoa eitzen hasi ginan. Hala ere, gaur egun Luz Ardidenera juten geranian, beti pistaz kanpo ibiltzen gera". Honetaz gain, snow-arekin ere ibilitakoa da, baina mendian ibiltzeko nahiago ditu eskiak. Trabesiako eskia gogorra da, eta urteak aurrera joan ahala gogorragoa, baina Alberto Zelaiak, urrun ikusten du oraindik bere erretiroa.



FONDOKO ESKIA 14.

A.rkaitz Irureta aspaldi hasi zen eskiatzen: "Gaztiak ginala, elurra itxen zaban bakoitzian eskixak hartu eta Madarixara igotzen ginan ahal genduana eixera". Urteak pasatu ahala, bere lehengusuaren eraginez, fondoko eskia egiten hasi zen: "Eibarko lehengusuak fondoko eskixa eitzen zaban, eta berakin hasi nitzan. Hasieran alpinoko eski zahar batzuk geneuzkan, eta haiekin mendira igotzia ezinezkoa zen. Fondoko eskixekin askoz erretzaua zan guk nahi genduana eixia, eta guretzako kriston aldaketia izan zan".

Fondoko eskiak modalitate desberdinak eskaintzen ditu: "Altemoa da bat, eta bestea patinajea. Bixetan ibili izan naiz". Fondoko eskiek ere, bere ezaugarri propioak dituzte: "Estuauak, luziauak, eta arinauak dia. Hala ere, forma fisiko onean egotea garrantzitsua da, eta lehen Roller-skixekin ibiltzen nitzan San Lorentzon eta industrialdietan entrenatzen. Errubera batzuk ditxuzten eskixak dia, eta frenatzia oso zaila da".

Fondoko eskiaz gain, Arkaitzek eskiatzeko beste zenbait modalitate ere

probatu ditu: "Snow-akin asko ibiltzen naiz azkenaldian, eta trabesiako eskixa ere probau dot". Trabesia eta fondoko eskia antzerakoak, baina aldi berean, desberdinak direla azaldu digu Arkaitzek: "Fondoko eskixa zapal dutako pistetan eitzen da, markatutako zirkuito baten, eta trabesiako eskixakin nahi dozun lekura jun zeinke. Fijazivak ere, fondokuan solte juten dia, eta trabesian lotuta".

Arkaitz Irureta eskiatzaile soil bat baino gehiago da, eta fondoko eskiko hainbat txapelketatan ere hartu izan du parte: "Lehengusua juten zan txapelketetara eta eurekin hasi nitzan. Kopa eta domina batzuk badauzkat etxian, baina gauza haundiegirik ere ez dot irabazi".

Arraroa dirudien arren, eta jende gehiengoak guztiz kontrakoa pentsatzen duen arren, Arkaitz Iruretari alpinoko eskia oso arina iruditzen zaio: "Politxa da, baina nik nekia sentitxu bihar dot. Fondoko eskixan ez da erremonterik bihar. Gogorra da, baina neri hori gustatzen jata". Bere ustetan,



Arkaitz Irureta

jendeak pentsamoldea aldatu beharra dauka: "Danak uste dabe fondoko eskixa zatarra dala, baina nik eski alpinuan oinarria dala uste dot. Fondoko teknika ikasitxa, alpinuan ere ondo moldatzen da, beraz, nere ustez hobe da fondoko eskixakin hastia".

SNOW BOARD

In ex San Martin 12 urterekin hasi zen eskiatzen, baina duela hiru urte inguru snow-a probatu, eta beretzat eginiko kirola zela iruditzen zitzaion: "Snow-a saltuak eitzeko erakargarria iruditzen jatan, ikusgarria eta dibertigarria ematen zaban, eta snow-a lehen aldiz probatu nabanian, niretzat egindako kirola zala konturau nintzan. Eskixek ere aukera berdina ematen dabe, baina ezberdina da. Oin nahixo dot snow-a. Posibilitate gehixo ematen ditxula iruditzen jata".

Eskia eta snow-a oso desberdinak dira. Manexek esan digunez, eskiatzen jakiteak elurrari beldurra galtzeko balio du, baina bestela guztiz desberdinak omen dira: "Snow-arekin arrastriak hartzia oso zaila da, belauniko arrastaka ere ixo izan dot arrastre bat. Osterantzian Snow gainian ibiltzen



Manex San Martin


ikastia eskiatzia baino erretzagua dala uste dot. Eskixekin lehenao bajau leike aldapa handi bat. Askok kontrolau gabe ere, edozein aldapa jeitsi leike eskixekin, kufia estilua erabiliz. Baina snow-arekin nibel hobio lortzen da ordu gutxio sartuta".

Hasiera batean eskiatzaileak ziren nagusi eski estazio guztietan, baina gaur egun, snow-a egiten dutenak gero eta gehiago dira. Manex urtean hiru edo lau asteburutan joateii da eskiatzera, Normalean Candanchu, Astun edo Luz Ardidenera joaten da, baina Ezcaray eta Aretten ere, ibilitakoa da. Esan digunez, eskiatzaile eta snow-a egiten dutenen artean, pike antzerako zerbait existitzen omen da: "Snow-a kirol berrixaua da, eta jende gaztia ibiltzen da batez ere. Ganberro fama apur bat ere badaukate, baina ez dao holakorik".

Ikastolako eta Institutuko ikasleek ingurugiroa aztertzeke Debabarreneko agenda eskolarraren proiektuan hartu dute parte

nebegesak bultzatutako Agenda 21 planaren barnean, ingurugiroa aztertu dute Elgoibarko Ikastola eta Institutuak. Elgoibarko Ikastolak uraren gaia landu du. Uraren erabilerak eta urak jasaten dituen tratamendu guztiak aztertu ondoren, erabilera okerrak zuzentzeko soluzioak planteatu zituzten. Lanari bukaera emateko, Azpeitiko Barriola depuradora bisitatu zuten. Institutuko ikasleek, ordea, herriko kutsaduraren gaia aukeratu dute. Kutsadura mota asko daude, eta beraiek nahiko ezezaguna den kutsadura mota bat landu dute, kutsadura akustikoa, alegia. Azalpen teoriko eta praktikokoak jaso ostean, ondorioak atera zituzten.

Agenda 21 proiektuaren helburu nagusia, Debabarreneko DBH 3 eta 4. mailako ikasleek bere eskualdeko zein munduko ingurugiroari buruzko arazoak ezagutu eta ulertzea da. Proiektu honetan aterako dituzten



ondorioak, 2003-2004 ikasturteko agendan agertuko dira. Aipatu behar da, Elgoibarko ikastetxeetatik gain, Mutrikuko Institutua, Ermuko Anaitasuna Ikastola eta Soralezuko Institutuak ere, parte hartu dutela proiektu honetan.

Otsailaren 12an bukatu ziren Herri Eskolak antolatutako Gurasoentzako 5. Jardunaldiak



Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta, joan zen otsailaren 12an bukatu ziren Gurasoentzako 5. Jardunaldiak. Aurtengoan bi ekitaldi izan dituzte jardunaldi hauek. Peio Añorgak ipuin kontalaritza saioa eskaini zuen, joan zen otsailaren 5ean Kultur Etxean. Jende ugari bildu zen Oiartzungo idazle eta ipuin kontalari honen kontuak entzuteratzen. Elgoibartarrak beren seme-alabekin hurbildu ziren Kultur Etxera, eta kontatu digutenez, izugarri gozatu zuten ekitaldiarekin. Bestalde, Isabel Gonzalez psikologo

eta familia terapeutak hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean, joan zen otsailaren 12an. Isabel Gonzalezek eskolaz kanpoko ekintzei buruz hitz egin zuen, hau da, haurrek eskolaz kanpoko ekintzak noiz hasi behar dituzten, zenbat iraun behar duten, eta ekintza horiek nola aukeratu behar diren azaldu zuen besteak beste. Azken finean, guraso guztiak izaten dituzten kezkek argitu zituzten hizlariak. Guraso ugari bildu ziren Kultur Etxean, eta beren seme-alabei buruzko gauza interesgarri ugari entzuteko aukera izan zuten.

Herri Eskolako ikasleek Barren bisitatu zuten

Elgoibarko Herri Eskolako ikasleek Barren aldizkaria bisitatu zuten. Bi taldetan banatuta, 30 ikasle inguru etorri ziren guztira. Gure aldizkariaren funtzionamendua ezagutzeko asmoz etorri ziren, eta gure zuzendariak eman zizkien azalpen guztiak. Prestatuta ekarri zituzten hainbat galdera erantzun genituen, eta astero-astero Barren nola egiten den kontatu genien. Gure lana asko gustatu zitzaion, eta batzuk kazetari izateko asmoa zeukatela esan ziguten.



CCOO sindikatuak Elgoibarko Udala salatu du Euskal Herriko Auzitegi Gorenaren sententzia ez betetzeagatik

Alex Mandiola Giza Baliabideetako teknikariaren kontratazioa salatu dute

Anjel Madrazo eta Jon Azkue CCOOko arduradunek prentsaurrekoa eskaini zuten joan zen otsailaren 13an, eta bertan azaldu zuten, "Udalak ez du Euskal Herriko Auzitegi Gorenak ezarri dion sententzia bete". **Alex Mandiola Giza** Baliabideetako teknikariaren kontratazioa ilegala izan zela eta pertsona hori kaleratu egin behar dela adierazten duen sententziari kasurik ez diotela egin adierazi zuten. Beraien hitzetan, "abendua erdialdean jaso genuen sententzia, eta Udalak oraindik ez duela jaso esan digu. Seguru gaude sententzia ezagutzen dutela, eta oraindik ez du sententzia betetzeko pausurik eman". Bestalde, prentsaurrekoan azaldu zuten, joan zen urtarrilaren 27an, Donostiako kontzertuoso-administratibo epaitegiak, bigarren idatzi bat bidali zion Elgoibarko Udalari, sententzia hori betetzeko 10 eguneko epea daukala. CCOOeko



Jon Azkue eta Anjel Madrazo hilaren 13an eskaini zuten prentsaurrekoan.

arduradunek, Alkatearen jarrera salatu dute: "Herritarren dirua dago jokoan. Udalak prozedimendu guztiaren kostua ordaindu beharko du, eta azken finean, hori herriak ordaintzen du."

ELAri kritikak

ELA sindikatuak ere, kritikak jaso zituen prentsaurrekoan: "ELA ere hasi zen kontratazio honen aurka lanean, baina bide administratiboa bukatu zutenean, bertan behera utzi zuten. Hasieran ez genekien zergatik, baina aurrerago, Alkateak, Jose Antonio Gomez Garrido ELAko pertsonalaren delegatua, mantenimendu eta stock arduradun izendatu zuen, bere soldata handituz". Honekin batera, "Gaizka Garate Narvaiza langilea kontraturik gabe eta Gizarte Segurantzari ordaindu gabe Udaletxean aurrera eta atzera ibiltzea ere ez da bidezkoa", gaineratu zuten.

Bukatzeko, CCOOek, alderdi politikoei gai honen gainean daukaten jarrera azaltzeko eskatu zien, eta beraiek behar den toki guztietara joko dutela gaineratu zuten, honelakorik berriro ez gertatzeko.

45 elgoibartar izan ziren Lourdesen bertako Amabirjinaren Egunean



1994an Lourdesera joan ziren 8 emakumeak agertzen dira argazkian.

Duela hamar urte zortzi emakume elgoibartar, argazkian ikus ditzakezuenak, Lourdesera (Frantzia) joan ziren Lourdesko Amabirjinaren Egunean. Urteen poderioz bidaiaria hura ohitura bihurtu da eta aurtengoa Lourdesera joan diren 11. urtea izan da. Ez dira bederatzi izan, ordea, 45 elgoibartar baizik. Azkoiti, Azpeiti, Zestoa eta Zumaiako jendearekin osatutako lau autobusetan joan ziren "milagroen herrira". Dena dela, hurrengo urterako 60 lagun elkartzea gustatuko litzaiekeela aipatu digute Elgoibarko arduradunek, "horrela zuzenean joan ahal izango genuke Lourdesera, herrietatik jendea batzen joan gabe". Goizeko 6:15etan aterata ondoren 10:30etan iritsi ziren helmugara. Lourdesko basilikan meza entzun ostean, Gurutze Bidea egin zuten, haitzulotik pasatu, ur miragarria hartu, hiria bisitatu eta etxera bueltatu ziren, denak ere oso gustura aitortu digutenez.

Parrokiako Misio Taldeak globalizazioaren inguruko lau hitzalditatik lehena eskaini zuen otsailaren 17an

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, globalizazioaren inguruko hitzaldia eskaini zuen joan zen otsailaren 17an Arturo Garcia apaizak. Iaz ere, gai beraren inguruan jardunaldi bat eskaini zuen, baina globalizazioaren gaia bere osotasunean azaltzeko motz gelditu zen, eta aurtengoan lau hitzaldi eskainiko ditu. Lehenengoan, globalizazioaren esanahia azaldu zuen, arlo ekonomiko, politiko eta kulturalen. Munduaren egungo egoerari buruzko hainbat datu eman zituen. Herralde aberats eta pobreen ezberdintasun nabarmenenak ere, azaldu zituen, eta entzuleak hausnarketarako bidean jarri zituen. Azken ordu erdian, entzuleen galdera eta kezka



guztiak argitzen saiatu zen. Globalizazioaren gaia tratatzen duten liburuen bibliografia zabala eman zien hitzaldira joan ziren guztiei, eta datozen hitzaldietan (otsailak 24, martxoak 3 eta 10), globalizazioaren gaia sakonduko dute.

Maria Asun Larrahagak irabazi du Misqui Elkarteak zozketatutako Gemma Monrealen koadroa



Joan zen ostegunean egin zuten zozketa, eta Maria Asun Larrariaga izan da Misqui Elkarteak zozketaren irabazlea. Gemma Monreal margolari elgoibartarrak lagatako koadroa izan da saria, eta margolan honetan Burgosekko Frias herria agertzen da. Dakizuen moduan, Gemma Agirregomezkorta martxoan abiatuko da Peru aldera, kanpainan jasotako dirua banatzera, eta eskerrak eman nahi dizkie, kanpaina honetan parte hartu duten elgoibartar guztiei.

Jakinarazitako obraren gaineko Udal Ordenantza jarri da martxan

Jakinarazitako obraren gaineko Udal Ordenantza eskatzerakoan, momentuan lortzen da obrak egiteko baimena. "Obra jakinarazpena"-ren helburua, obrak egiterako orduan egin behar diren tramite guztiak arintzea da. Administrazio arin eta eraginkorra, elgoibartar guztien eskura jarri nahi da. Honela, tramite burokratikoak gutxituko dira, eta obra txikiak egin nahi dituztenei erraztasunak emango zaizkie.

Hala ere, honen barnean ez dira obra guztiak sartuko. Hauek dira bete beharreko baldintzak:

- Etxe barneko obrak. Fatxada eta oinarritzko elementuetan eraginik izango ez duten lur edo sabaiko obrak.

- Ate, edo kanpoaldera ematen duten leiho aldaketa, zaharren tipologia, tamaina, eta kolorea errespetatuz, beti ere, individualki eginak, eta ez etxebizitza talde moduan hartuta. Salbuespenak izango dira Foruen Plazara eta Nafarroa Plazara ematen duten etxebizitzak. Ez da onartuko balkoiak ixtea.

- Etxebizitzaren ziurtasun orokorrari eragiten ez dioten instalakuntzen berrikuntza edo konponketa.

- Etxe barneko ate, leiho eta higiene elementuak aldatzea.

- Fatxada margotzea, aurreko kolorea mantenduz.

- Obrak egiteko beharrezko diren elementuak erabiltzea, beti ere, jakinarazpenaren barruan. Ez dira andamioak onartuko.

Malape taberna
Orain astegunetan
egunero 7:00 etan
irekitzen dugu
San Frantzisko, 60
Tel: 943 74 19 43

© malape
Elgoibar 741943

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

Gobernu Espainiarrak hilean 100 euroko laguntza eskainiko die umeko lanean dauden amei ZUK ZER EGINGO ZENUKE JENDEA UMEAK EKARTZERA ANIMATZEKO?



MORISSETE ALVAREZ
38 urte, kz guneko tutorea

Dirua ematea oso ondo dago. Frantzia, eta beste hainbat rstatutan aspalditik egiten duten kontua da, eta gainera, eskolaratzeko gastu guztiak ordaintzen dituzte. Ekonomikoki laguntzea oso ondo dago.

AUNORA RODRIGEL
44 urte, etxeoandrea

Haurrak ekartzeko dirua ematea oso ondo dago, baina beste batzuk ere diru horren beharrean daude, etxeoandreak esate baterako. Gero eta haur gutxiago ekartzen dira, eta gazteak animatu egin behar dira.



CARMEN ALAMINO
42 urte, zaintzailea

Arazo ekonomiko larria dago, eta diruz laguntzea garrantzitsua da. Jaiotze tasa asko jaitsi da, eta bikote guztiak animatu behar ditugu haurrak ekartzera. 100 euro ondo dago, baina ez da nahikoa.

PEIO JUARISTI
44 urte, irakaslea

100 euro hilean oso gutxi da. Hasteko ez dago gaizki, baina diru gehiago eman beharko lukete. Nire ustez garrantzitsuagoa da etxebizitzaren prezioa jaistea.



PATXI JUARISTI
47 urte, almazeneroa

Gazte jendeak arazo handiak ditu gaur egun umeak ekartzeko. Lanean hasten direnean soldata oso baxuak irabazten dituzte, eta etxebizitzak oso garesti daude. Ekonomikoki laguntzea oso ondo iruditzen zait.

RAFAEL LETE
42 urte, gerentea

Ez dugu umeak ekartzeko laguntzarik behar. Egoistak gara eta ez dugu gure gurasoek pasatutakoa bizi nahi. Udan kanpora joaten gara, gazteek autoa daukate eta kapritxosoak garelako ez dugu umerik ekartzen.



**IITURAK**
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 « 3.sotoa 'zr 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA


**karkizano**
San Frantzisko, 14 — Tel. 943 74 05 49

**Arrieta**
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

BARRREN

ASTEKARIA

Elkarrizketa



JESUS GABILONDO (1916) REALEAN JOKATU ZUEN LEHENENGOTARIKO ELGOIBARTARRA IZAN ZEN. 1943TIK 48RA JOKATU ZUEN TALDE TXURI URDINEAN. BESTE GARAI BATZUK ZIREN ETA FUTBOLA ERE BESTE MODU BATEKOA ZEN, BAI JOKATZEKO MODUA ETA BAITA FUTBOLAREN INGURUKOAK ERE. EZ ZEGOEN MEDIKU EDO MASAJISTARIK ETA SEVILLAN PARTIDU BAT JOKATU ETA ETXERA ITZULTZEKO 4 EGUN BEHAR ZITUZTEN. BALOIA ERE NARRUZKOA ZEN ETA URAREKIN PISUA HARTZEN ZUEN. HAU GUTXI BALITZ, REALEKO JOKALARIEK LAN EGIN BEHAR ZUTEN BIZIMODUA ATERATZEKO. NOLA ALDATU DIREN GAUZAK, EZTA?

Jesus Gabilondo

" ESPAYNOLEN AU.RKA DEBUTAU NABAN REALAKIN 43AN ATOTXAN"

MAKINA BAT ELGOIBARTARREK MODUAN PLAZA TXIKIAN IKASI ZUEN FUTBOLEAN JESUS GABILONDOK, JOSEBA EIXEBERRIA BERA ERE BERTATIK PASATAKOA DA. LERUNGO FUTBOL ZELAIA INAUGURATU ZUTENEAN, 1935. URTEAN, KLUB DEPORTIBO ELGOIBARREK LERUNEN JOKATU ZUEN ESTREINAKO PARTIDUAN HAMAIKAKOAN IZAN ZEN JESUS. PROFESIONAL GISA ALAVESEN HASI ZEN JOKATZEN ETA 3 URTE EGIN ZITUEN BERTAN GERRA OSTEAN. ONDORENGO 5 URTEAK REALEKO KOLOREAK DEFENDATZEN PASA ZITUEN. AZKEN URTE BAT ALAVESEN EGIN ETA GERO ELGOIBARREN AMAITU ZUEN FUTBOL KARRERA.



Jesus Gabilondo

"300 pezetako primi,

/ Noiz eta non hasi zinen futboleko jokatzeko?

Umetatik gustau izan jata foballa. Beste elgoibartar asko moduan Plaza txikixan ibiltzen ginan jolasian.

Noiz hartu zenuen futbola serioago?

Mutrikuarrek foball desafiva jarri zuten "El Dia" egunkarian. Elgoibarren 16 urte inguruko lagun koadri- lia juntau eta Deban jokatu gendun partidua, El- goibarren eta Mutrikun ez baitzauan foball kan- porik. Julian San Martin, Julio Arriaga, Iñaki Konde, Juanito Uria, Martin Osoro, Jose Mari Igartua, Pelayo, Aztiazu.... osatzen gendun taldea eta irabazi ein genien. Gero, Eibartarren kontra jokatu gendun. Euren botekin eta gu alpagatekin eta irabazi ein genien!

Partidu gehiago jokatu al zenituzten?

Bai, jokalaria zaharrrauak batu zi- tzaizkigun eta Amaikak bat taldea osatu gendun. Akorduan daukat "La Noticia" egunkarixak antolau zaban torneo batian hartu gendula parte Arrasaten. Eibartarren, bergararren eta arrasatearren kontra jokatu gendun, dirua gure poltsikotik jarritz. Txan- kian autobusa alkilau gendun egun guztirako 6 errial pagauta.

Elgoibarren ez al zegoen futbol zelairik?

Ez, baina Elgoibarren kanpua ipintzeko or- dua ailegau zala pentsau gendun. Don Antonio Arrillagarengana jun zian jokalaria batzuk kan- po eske. Harek kanpua ipiniko zabala esan zien, baina kondizio batekin, taldian izena alda- tuz gero. Registrora jun eta Klub Deportibo El- goibar izena jarri gendun. Jokalarixak federau eta gauziak seriotasun pixka bat hartu zaban.

Noiz inauguratu zen futbol zelai berria?

1935. urtian inaugurau zan Lerungo foball zelaixa, Trinitate Egunian. Trintxerperen kon- tra jokatu gendun eta 3 eta 2 irabazi ziguen pasaitarrek. Hasieratik kamiseta txuri gorri- xakin jokatu gendun.

Eta gerra iritsi zen?

Bai, gerria etorri zan eta gerrara. Amaitxu eta gero soldadu nenguan Vi-



jaso gendun Real Madrili irabazteagatik"



torixan eta Alavesetik deitxu zien. 3. dibisivan zauan Alaves eta 3 urte ein nitxuan bertan, 1940tik 43ra. Gerriak dana apurtu zabanez, Alavesian ere ez zauan jokalaririk eta soldauen artian bilau bihar izaten zitxuzten. Gero Realera jun nintzan.

Zenbat urte jokatu zenituen Realean

Bost urte izan zian, 1943tik 48ra. Espaynolen aurka debutau naban. Logroñora guazela, ostatu eitzen gendun tabernan telefonuak jo zaban. Benito Díaz zan, Realeko jokalaria xa izandakua bere denboretan eta gero Realeko eta Espainiako selekzionatzaile famatua. Logroñotik segiduan bueltatzeko eta Atotxara juteko esan zian. Zapatu arratsaldia zan eta domekan Espaynolen aurka jokatu bihar naban lehen mailako partidua. 5 eta 1 irabazi gendun.

Zer soldata jasotzen zenuen Realean?

Kobratu naban fitxaririk handixena 10.000 pezetakua izan zan urteko. Real Madrid-eri irabazteatik 300 pezetako primia eman ziguten.

Nahikoa al zen bizimodua ateratzeko?

Ez, Sigman eitzen naban lan. Eskerrak enkargau oso ona nakanari

"SEVILLAN PARTIDU BAT JOKATZEKO LAU EGUN EITREN GENITRUN TRENIAN JOAN ETORRON "

eta danerako laguntzen zian. Astian bi bider juten nintzan entrenatzera, lanian jai hartuta. Sevillan partidu bat jokatzeko lau gau eitzen genitxun trenian. Barixaku goizian Madrileren jun, egun guztia Madrilen pasau eta gabian Sevillaruntz trenez. Partidua jokau, azkar afaldu eta berriz trenera. Martitzenian ailegatzekin ginan etxera eta tailerrera jun bihar piezak itxera hurrengo egunian entrenatzera jutia nahi banaban. Urte batian 36.000 kilometro ein genduzen trenian. Eskerrak 12 ekipo bakarrik zaudela.

Realean jokatu zenituen 5 urteetako oroitzapenik onena?


47xan lehen mailara igo ginanekua. Murtziaren aurka jokatu gendun igoeria partidu bakarrera. Madrilen izan zan eta 2 eta 0 irabazi zaban Realak. Madrileri Atotxan irabazitako partidu bat ere goguan dakat. 1944ko martxuan 19an, bi eta bat irabazi gendun.

I Nora joan zinen Realetik?

Realetik berriz Alavesera itzuli nintzan urtebetez eta Elgoibarren amaitxu naban karrera, hasi naban tokixan amaitzia nahi naban-eta. Gero entrenatzaile moduan ere ibili nintzan.

I Zer postutan jokatzen zenuen?

Defentsan beti, eskumako aldi gehixenetan, baina baitxa ezkerraldian ere. Gure garaixan bi defentsekin bakarrik jokatzen zan, hiru erdi-lari eta bost aurrelari. Oingua laberinto bat da, piboteak...





Telleria zumaiarra (ezkerrean), Galarraga atezain debarra eta Jesus Gabilondo elgoibartarra.



Elgoibartarrez osatutako Amaiak Bat taldeak Arrasaten torneo bat jokatu zuen 1935. urtean

Zer ezberdintasun daude lehen eta gaur egungo futbolaren artean?

Kontrakuari jokatzeko ez lagatzia da gaur egungo foballan estila, kontraxuan jokua apurtzia, alegixa. Lehen inprobisazio eta libertade gehixo zauan, ez zauan markajerik. Foballa hobia zan neretzako. Jokua bertikalaua zan. Futbolista onak beti egon dia, lehen eta oin, baina gaur egungo sistemian desastre bat da, 2 metro aurrera eitzeko gehixegitan ikutzen dabe baloia.

Zer ezaugarri zenituen jokalaria moduan?

Batez ere jokalaria gogorra nintzan. 8 partidu jokatu nitxun txorkatilla gaizki nakala. Oin esgintze batekin ezda-

be jokatzeko. Ez naban sekula masajerik hartu eta ez nintzan inoiz larri lesionau. Nere garaixan ez zakagun medikorik ezta masajistarik ere. 12 jokalaria eta entrenatzailia juten ginan partiduetara. Honek itxen zitxuan delegatu, masajista eta mediku lanak.

"LEHEN INPROBISAZIO ETA LIBERTADE GEHIXO ZAUAN, MARKAJERIK GABE. FOBALLA HOBIA ZAN"

I Nolakoak ziren lehengo baloiak?

Kanpokaldetik jozkeria eukitzen zaben eta min ematen zaban buruz jotzerakuan. Ebaixak eta markak laga-

tzen zitxuan aurpegixan. Gainera, narruzkuak zianez ura zauanian pisua hartzen zaben. Coruñan kontra Atoxtan jokatu gendun partidu baten entrenatzailiak baloia pisatzeko eskatu zion kontserjiari eta 700 gramo eman zitxun.

Eta botak?

Zenbat aldiz sartu niozen takuak nere boteri. Zapatero lanak ere geuk eitzen genitxuan. Zebua botatzen genien bota eta baloiei eta txintxiliz laga, urdaizpikuak moduan, zikatzen.

I Nolakoak ziren Athelicen aurkako derbyak?

Ikuslien artian pikia zauan, baina pike deportibua. Askoz ere edukazio gehixao zauan, zatixa gehixao.

IJarraitzen al duzu Realak?

Bai, baina behin bakarrik jun naiz Anoetara. Egixa esan nahixao dot telebistatik pilota partidu on bat ikustia foballa baino. Aukeran Olaizola ILkin geratzen naiz foballistatik fenomenuenakin baino. Hala ere ia ligia irabazten daban Realak.



1944. urtean Real Madril handiari 2 eta 1 irabazi zion Realeko taldea ageri da erretratuan. Martxoaren 19an jokatu zuten partidua Atotxa futbol zelai mitikoan. Jesus Gabilondo goiko ilaran ezkumatik lehena da.



Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
21 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
22 Yudego	Ibañez
23 Ibañez	Ibañez
24 Bidasolo	Bidasolo
25 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
26 Fernandez	Fernandez
27 Yudego	Yudego
28 Zabaleta	Zabaleta

FARMAZIAK
ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42
ZABAIETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
26 igandea Doña Mercedes

EuskoTren

DONOSTIA-BILBO
 Egunero
 Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45
 Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
 * jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
 Egunero
 Bilbo 06:00 7.00... 20.00
 Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
 * jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

EuskoTren

AUTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR
 Egunero
 Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
 Astegunetan
 Elgoibar 07.25 08.25 10.25 21.25
 Jaiegunetan
 Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

PESIAUTOBUSAK

LARUNBAT GAUA

ED3AR-ONDARROA					ONDARROA-EIBAR				
Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30	Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40	Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60	Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55	Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05	Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

EIBAR-MUTRIKU					MUTRIKU-EIBAR				
Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00	Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10	Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20	Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25	Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

EIBAR-AZPEITIA				AZPEITIA-EIBAR			
Eibar	01.30	03.30	05.30	Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40	Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Azkoitia	01.50	03.50	05.50	Elgoibar	00.45	02.45	04.45
Azpeitia	01.55	03.55	05.55	Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenhideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
M intxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H	943 74 41 32

Institutua

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
I kastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki Irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

"Zinema Itsuan antolatu du Sinuose kolektiboak

Otsailaren 28an izango da kultur Etxean 22:30ean

Lnoiz pentsatu al duzue nola ikusi, edo hobe esanda nabaritzen duen film bat pertsona itsu batek? Ideia hau oinarritzat hartuz antolatu dute "Zinema Itsua" Sinuose kolektiboko artista elgoibartarrek. Otsailaren 28an, barixakuan, izango da emanaldia Kultur Etxean.

Patxi Zabaleta eta Iban Urizarrek azaldu digute nola sortu zitzairen ideia. "Itsuek nola jasotzen edo sentitzen duten zinea da oinarrian dagoen ideia, hau da, nolakoa izango litzatekeen irudirik gabeko film bat, zinema itsua, alegia". Irudiek indar handia duten arren, soinuek eta hotsek joko handia ematen dutela aitortu digute, "filmetako grabaketak erabili ditugu material gisa, edozein filmetakoak. Izan ere, pelikula txarra izan arren, etekin mordoa atera dakioke soinu aldetik".

Ibanek azaldu digunez hartu eman baten ondorioz sortu zen ideia, "Patxik beti izan du minidisk-a hartu eta pelikuletatik edo beste hainbat lekutatik soinuak jasotzeko ohitura. Denborapasa moduan egiten zuen edo kontzertuetarako materiala edo baseak edukitzeko. Buruari buelta batzuk eman eta materiale horrekin zerbait



egin genezakeela bururatu zitzaigun".

Ikuskizunaren ezaugarriei dagokionez, nahiago dute gauza gehiegirik ez azaltzea, "urtero bezala aurredispozizio batekin eta belarriak zabalik joan dadila eskatu nahi diogu jendeari. Bakoitzak bere buruan osatu beharko du pelikula". Aurten ez dute iaz moduko gauza handiegirik antolatu nahi izan. "Leku txiki baten

eta gauza gutxirekin nahi genuen zerbait egitea". Duela 7 urte hasi ziren lagun batzuk ikuskizunak antolatzen. Lehen bost urtetan inauterietako asteartetan eta azken bi urteotan, jadanik Sinuose kolektiboa izenpean, ostiraletan.

22:30ean hasiko den saioak 55 minutuko iraupena izango du eta doanekoa izango da.

Nagore Perez Goenkale telesailean hasiko da lanean

Martaren papera antzeztuko du telesail beteranoan



Nagore Perezek Martaren papera antzeztuko du ETB1-eko Goenkale telesailean. 1979. urtean jaio zen Nagore Elgoibarren, nahiz eta 11 urterekin Debara joan zen bizitzera. Antzerkigintzan oso gutxi ibilia bada ere, pasarelako interpretazioan espezialista da, 17 urte bete zituenetik, modelo lanetan jardun baita. Azaldu digunez, poz handia hartu zuen Goenkaletik lanean hasteko deitu ziotenean. "Esperientzia polita izaten ari da eta gainontzeko aktoreen al-


detik laguntza handia jaso dut. Goenkaleko platoak gertutik ikusteak ere zirrara handia sortu zidan". Nagorek Martaren papera antzeztuko du telesail beteranoan. Marta 30 urteko irakaslea da, Koldoren bikote berri zoragarria, hain zuzen ere. "Bere lekuan egoten daki eta ezinezkoa da harekiko gorrotorik sentitzea. Gehiegi fidatzen da jendeaz, ezin du ulertu norbait hortaz aprobetxa daitekeenik. Oso maitakorra da eta erraza da jakitea momentu bakoitzean zer pentsatzen ari den".

Mallorcako Museo berri baten sarreran jarriko dute Mertxe Sueskuneren eskultura bat

Egur Arte tailerrean izan zuen lehen kontaktua artearekin

Mertxe Sueskunek egindako brontzezko eskultura batek egingo die ongiatorria Mallorcako museo berri batera hurbiltzen diren ikusleei. Maiatzean inauguratuko dute arteleku berria eta jadanik sarreran dago Mertxeren eskultura, nahiz eta estalita egon oraindik. Jaiotzez nafarra izan arren 1972an ezkondu, Elgoibarrera etorri eta bertan bizi izan zen 98ra bitartean.

Gaur egun Iruñean bizi da, baina lotura asko ditu oraindik ere Elgoibarrekin. Artearekin izan zituen lehen kontaktuak adibidez, Egur Arte tailerrean izan zituen. "1980. urtean izan zen Egur sortu eta berehala". Ondoren Debako Arte Eskolara joan zen eskulturaren mundua lantzerako. Garai hartan sortu zen Mallorcan jarriko duen artelanaren ideia. Erdialdea hutsik duen metro eta erdiko brontzezko irudi zirkularra da



Mertxeren lana. Eibarko Alfa Arte tailerrean eman diote itxura Mertxeren ideiarri. Mallorcara, berriz, kasualitatearen poderioz ailegatu dela aipatu digu. "Pedro Serra arte kolekzionatzaile ezaguna Alfa Arte tailerrera joana zen Jorge Oteizaren brontzezko eskultura bat lortu nahian, baina tamaina txikiagoan eginga zegoen nire eskultura ere gustatu zitzaion". Egilea ezagutu nahi izan zuen eta eskultura erosteko asmoa adierazi zion. Mertxek baiezkoa eman zion harrituta egon arren, eta Alfakoekin elkarlanean hasi zen segituan. Eskulturaren munduan sartuta jarraitzen duela aipatu digu, baina honetaz bizitzea ezinezkoa dela aitortu ere bai. Museoa irekitzen dutenean Mallorca aldera bisita bat egitera joatea ere gustatuko litzaiokeela esanez agurtu gaitu.

Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

r IriondoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

II "JOSE *pvirtw4ai*
(Txema)


**Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortexoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

nola ALDATU diren gauzak!

2003-11-21

1900. urte ingurukoa dugu erretratu hau, aurreko mendekoa, hain zuzen ere. San Frantzisko kalea ikusten dugu bertan, kale hasiera ingurutik aterata dago erretratua. Ikusten den bezala, kale hau oso desberdina zen garai horretan. Begira zelako balkoiak ikusten diren! Garai hartan oso dotoreak ziren honelako balkoiak. Asto mordoak jaisten zen baserritik kalera, baserriko produktuak saltzera. Baserritarrek produktuak saltzen zituzten bitartean, astoa paretean egoten ziren aro batzuei lotuta uzten zuten. Errepidea latz samar ageri da, eta ez dugu uste bertatik auto askorik pasatuko zenik.



2003. urteko argazkian, San Frantzisko kalea zeharo diferente ageri zaigu. Mugimendu handiko kalea da. Denda eta taberna ugari daude gaur egunean, eta herriko kale garrantzitsuenetarikoa da San Frantzisko kalea. Etxebizitza berri eta moderno ugari eraiki dituzte bertan, eta King-Kong-eko etxebizitza altua ere, ikusten dugu argazkiaren atzekaldean. Errepidea ere, zeharo aldatuta dago, eta gaur egun astorik ikusten ez bada ere, kotxeak ugari ibiltzen dira kale honetan.

Juanito Gorostiza

Javier Arriola, "Arriola IV", pilotaria hil da Munduko txapelduna izan zen 1962an eta 3 aldiz Espainiako txapeldun

Pilotari handia izandako Javier Arriola Lizarralde elgoibartarra hil zen pasaden otsailaren 13an. Arriola IV.aren heriotzarekin Elgoibarrek eman duen pilotaririk onenatarikoari esan diogu agur. 1934. urtean jaio zen San Lorentzo bailarako Parapan baserrian eta oso gaztetatik hasi zen pilotan bere osaba Artazo ezagunaren laguntzaz. Laster laga zuen atzean San Lorentzoko frontoia eta afizionatu mailan erakutsi zituen pilotarako zituen dohainak. Bost aldiz izan zen Gipuzkoako txapeldun, hiru aldiz bakarka eta bitan bikoteka. Espainiako txapeldun beste hiru alditan atera zuen. Atano X, Del Val edo Hilario Azkarate moduko pilotarien aurka neurtu zituen indarrak.

Ospea eta profesioaletara jauzi egiteko aukera eman zion garaipena 28 urterekin lortu zuen, 1962. urtean. San Lorentzoko pilotari apartak eskuz banakako Munduko Txapelketa irabazi zuen Iruñan jokatu ziren txapelketetan. Garaipen hark oihartzun handia izan zuen Elgoibarren. Etxera itzultzean herritar eta lagunak egin zioten harrera sekulakoa izan zen. Ajubita alkatea lagun zuela sabairik gabeko Citroen 2CV autoan zeharkatu zituen Elgoibarko kaleak lortutako txapela bildutako guztiei eTkutsiz. Ondoren profesioaletan hasi zen jokatzen. Berak afizionatu mailako



urteak izan zirela onenak aipatzen zuen, baina Ogeta edo Retegi II moduko pilotari handien aurka jokatzeke aukera izan zuen. Erretiratzeaz zegoela birritan jokatu zuen Erasungo txapeldun handiaren aurka. Bat Zarautzen eta bestea Elgoibarren, San Bartolometan. Biak galdu zituen. Partidu haiek Retegi berarekin gogoratzeko aukera izan zuen duela gutxi, Julianek Ikastolako frontoian jokatu zuen azken aldiari oroigarria eman baitzion Javierrek Retegiri. Doluminik zintzoenak Javierren familia eta lagunei.

Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketa Mintxetan jokatuko da otsailaren 23an

Mintxeta Atletismo Taldeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatzen duten Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketa domeka honetan, otsailaren 23an, jokatuko da Mintxetako kirol instalakuntzetan. 32 talde izango dira lehian, infantiletan, 16 mutilenak eta 16 neskenak. Beraz, kategoria eta lurralde bakoitzeko 4 talde dira: ikastetxeetako 3 talde, eta talde horietan sartzen ez direnekin osatutako selekzio bat. Talde bakoitzak 6 pertaide ditu, guztira 192 ikasle, 96 mutil

infantilen kategorian eta 96 neska infantilen kategorian. Jardunaldia 11:00etan hasiko da. 11:00etan neska infantilen kategoriako lasterketa hasiko da, 2.860 metrokoa. 11:15etan mutil infantilen kategoriako lasterketa hasiko da, 4.620 metrokoa. Kadete mailako Euskadiko Txapelketarekin osatuko da atletismo jardunaldia. Emazkumezko kadeteen lasterketa 11:45ean hasiko da eta 4.260 metro izango ditu; gizonetzkoena, berriz, 12:15ean hasiko da eta 5.700 metro izango ditu. Sariatik 12:45ean emango

EMAITZAK

Futbola

Haundi 6 - Gure-Txokoa 0 (Pref.)
Elgoibar 5 - Ilintxa 0 (Neskak)
Elgoibar 2 - Billabona 1 (Jub.)
Idiazabal 3 - Elgoibar 6 (1. erreg.)
Mondragon 4 - Elgoibar 1 (Kad.)
Real Union 0 - Elgoibar 0 (Inf.)

Eskubaloia

Tecnifuelle 23 - Zarautz 23 (Senior mut.)
Gaur Elg. 20 - GM Jakion 24 (Jub. mut.)
Pagoaga 20 - Kukullaga 18 (Kad. nesk.)
Cometel 18 - Kukullaga 19 (Jub. nesk.)
Pulpo 22 - Tecnomeca Elg. 23 (Kad.mut.)
Pulpo 23 - Pneumax Elg. 27 (Jub. mut.)
Salesianos 18 - Sanlo Elg. 22 (Sen.nesk.)
Pedrusko 5 - Intxurre 0 (1. erreg.)

Esku pilota

Udaberri saria

Lagunak II 6 - Intxaurren 22 (Kad.)
Lagunak 22 - Bergara 4 (Kad.)

Areto Futbola

San Pedro Kenci 6 - A.D. Peñucas 7
(Nazional A)
Lanbroa 4 - Gure Txokoa 1 (1. maila)
Lojantzi 12 - Koldo Mitxelena 4 (Jub.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 22

15:30 Elgoibar - Zestoa (Kad.)
17:15 Elgoibar - S. Tomas Lizeoa (Inf.)
Domekia, 23

16:30 Elgoibar - Pedrusko (1. erreg.)

Eskubaloia, Ki roldegian

Zapatua, 22

17:15 Tecnomeca Elg. - Aiala Ztz.(Kd.mut.)
18:45 Pneumax Elg. - Aiala Zautz (J.mut.)

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 21

21:30 Lagunak II - Lazkao (Kad.)
22:00 Lagunak - Lazkao (Kad.)
22:30 Lagunak - Euskal Jolas (Kad.)
Zapatua, 22

16:00 Lagunak - Bergara (Jub.)
16:30 Lagunak - Batzokiko (Nag.)

Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak informatika teknikaria behar du. Erref. 95704/2

Eibarko enpresak programatzailea behar du. Erref. 95661/3

Eibarko aldi baterako enpresak fruteroa behar du. Erref. 96325/2

Eibarko aldi baterako enpresak arraindegirako langilea behar du. Erref. 96319/2

Eibarko aldi baterako enpresak harakina behar du. Erref. 96313/2

Durangaldeko aldi baterako enpresak peoi espezialista behar du. Erref. 95417/4

Donostialdeko enpresak teknikaria behar du. Erref. 95504/3

Durangaldeko aldi baterako enpresak soldatzailea behar du. Erref. 95418/3

Donostialdeko enpresak optikoa behar du. Erref. 95051/2

Bidasoabarreneko enpresak kamioi gidaria behar du. Erref. 94663/5

Donostialdeko enpresak programatzailea behar du. Erref. 96010/2

Donostialdeko aldi baterako enpresak adminisraria behar du. Erref. 96063/3

Urola Erdiko enpresak instalatzaile elektrikoak behar ditu. Erref. 96480/2

Donostialdeko enpresak elektronikoa behar du. Erref. 96583/2

Donostialdeko enpresak ingeniari elektronikoa behar du. Erref. 96581/2

Donostialdeko enpresak ingeniari mekanikoa behar du. Erref. 96585/2

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langar-k Elgoibarren ditven zentru lanuntzaille hauekato batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristil **943 74 80 19** edo **IMH** (Nora Raman) **943 74 41 32** telefonora.

ESKAERA

Iturginak bere burua eskaintzen du Elgoibar, Eibar edo inguruetan lan egiteko. Ahal bada kontratuarekin. Gidabaimena eta 8 urteko esperientzia. tr 645 70 97 89/615 72 54 19

Neska arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko prest. tr 629 98 81 74

Emakumea, asteazkenetan garbiketara lanak egiteko prest. tr 943 74 22 01 (Araceli)

ESKAINZA

* Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. cr 943 74 45 82 (20:00-22:00)

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

- Bi CD erreproduktore salgai. 7:: 943 74 26 21
- Renault Clio 1.9 Diesel autoa salgai. SS-BB. 12 619 18 78 09
- Aixan 400 autoa salgai. Gida bainetik gabeko autoa. Egoera onean. tr 943 74 85 79/943 74 05 13
- Lur saila salgai Elgoibarren. 15.000m2 eta 15 urteko pinuarekin. tr 943 03 35 03
- Bigarren eskuko furgoneta erosiko nuke. Ir 653 01 10 43 (18:00etatik aurrera)
- Citroen ZX familiarra salgai. SS-AY 4.800 euro. s 943 74 23 25

Etxebizitzak

- * Pisia salgai Deban. 3 gela, 2 komun. tr 606 98 37 06
- Pisia edo logela hartuko nuke alokairuan. Mutil arduratsua. Tr 943 74 01 96 Karmelo (11:00-15:00/17:00-23:00)
- Pisia salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, igogailua, eguzkitsua. 11. 659 14 12 32
- Elgoibarren etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Tr 943 74 46 66/615 76 55 15

Lokalak

- * Karabana gordetzeko lekua behar da. Garajea, lokala, baserria... icr 943 74 04 66/605 77 53 57 (Inazio)

Garajeak

- Marradun bi garaje salgai Karakol inguruan. s 943 74 07 33 (Rosa. 18:00 aurretik deitu)
- Garajea Leku Ederren. 3. solairuan, egoera onean. s 660 79 53 01
- Garajea salgai Pista Beltzean. Prezio interesgarria. Tr 607 76 17 42
- Garajea alokatzen da Pedro Muguru-zako garajejan. Tr 943 74 06 05

Bestelakoak

- Mini disk bat galdu nuen otsailaren 10ean, funda beltz batean. Norbaitek aurkituko balu, deitu mesedez. Tr 943 74 88 64

Partikularrak

- *Hezkuniza Bereziko Magisteritza ikasi dut eta 3.ESO arte partikularrak ematen ditut. Interesatuta egonez gero deitu: tr. 652 71 59 11
- Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ingeles filologian zentziatua. 10 urteko esperientzia daukat. re 943 74 31 67 Nekane
- Frantsezeko klase partikularrak ematen dira Eibarren. Tr 943 20 31 56

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
Tel 943 741 461

Ordutegia:
Astelehen-ostiral: 17:00-20:00
Larunbata: 10:00-14:00

Agurrak

*Zorionak Iratxe Osorori, otsailaren 18an, 14 urte bete zituelakko. Ikastolako DBH 2koen partez.



* Zorionak **AMAMA JULI**! 93 urte! "Urteak bete nahi eta zahartzeko gogorik ez". Segi urteak lasai betetzen, zahartzeko asko falta jatzu-eta. Familiakoak.



♦ Zorionak Asier Odriozolari, hilaren 19an 8 urte bete zituelako. Amona, guraso, eta bere anaia Jonen partez.



*Zorionak **Borja**, larunbatean, hilaren 22an, 12 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta anaia Inazoren partez.



* Zorionak Leire Arrillagari, bihar otsailak 22, 10 urte beteko dituelako. Familiako- en partez.



• Zorionak **Antxon**, laister 5 urte beteko dituzulako. Familiako- en eta bereziki, zure arre- baren partez.



*Zorionak **sorgintxo**l Prest kandelak itzaltzeko? Ongi pasa igande- an, eta muxu handi bat denon partez.



*Zorionak **Nora**, zure lehen-engo urtebetetze- an, izeba guztien partez.



Zorionak Iker eta Aneri 8. urtebetetze- an. Muxu handi bana familiako- en partez.



***Kaixo parejal** Dagoeneko heldu zaizue egu- na... Eta zer esan dezakegu kasu hauetan? Zoriontsuak izan zaitezte- la abentura honetan, eta ondo pasa, gu primeran pasatuko dugulako- an gaude eta.

BEKAK

Museologia

Arabako Foru Aldundiak museoe- kin lotutako ikerketa- proiektuen bitartez, museologiako ikerketa sustatzeko be- kak eskaintzen ditu lizentziatuentzat. Epea: otsailak 26.

Pedagogia

Arabako Foru Aldundiak 3 beka eskaini ditu ekintza pedagogiko- en ikerketarako. Lizentziatu titulua eskatzen da. Epea: otsailak 26.

Minusbalitu fisikoentzako be- kak

Mapfre Medizina Fundazioak minusbalitu fisikoentzako lanbide heziketako be- kak eskaini ditu. Beken helburua ondoko arlo batean lanbide heziketa jasotzea da: autoedukazioa, automozioa, industria kalitatea, aluminiozko arotzeria, kontabilitatea, elektronikak, lorazaintza... Epea: apirilak 15.

LENIKETAK

Art NaOn Sariak

Asturiaseko Printzerriak Antzerki, Laburmetraia, Letra eta Arte Plastikoen Art Naldn Lehiaketa antolatu du. Epea: otsailak 28.

Altube Elkarteak

Altube Unibertsitate Elkarteak ipuin labur, olerki eta gidoi lehiaketa antolatu du. Informazio gehiago, 900 110 111 zenbakian. Epea: apirilak 16.

Laburmetraia lehiaketa

Espainiako Gazteria Kontseiluak "Distancias Cortas" laburmetraien lehiaketa antolatu du 30 urtetik beherako gazteentzat. Lehiaketaren gai nagusia, sexu harremanetan preserbatiboaren erabilera bultzatzea da. Epea: martxoak 3.

Kartelak

Andorrako Udalak bertako Aste Santua iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Lanetan erabilitako gaiak, teknika, estiloa eta koloreak libreak izango dira. Epea: otsailak 28.

LANA

Zarautz

Zarauzko Udalak obra eta zerbitzuetako zaintzaile lanpostu bat betetzeko oposizio- lehiaketa antolatu du. Eskola graduatu titulua, lehen mailako lanbide heziketako titulua edo baliokidea eta euskarako 2. Hizkuntza eskakizuna izatea eskatzen da. Epea: otsailak 27.

Kultura teknikaria

Bergarako Udalak kultura teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio- lehiaketaren deialdia egin du. Unibertsitateko goi- mailako titulazioa eta euskarako 4. Hizkuntza eskakizuna beharrezkoak dira. Epea: otsailak 26.

21 BARIKAKUA

BERTSO AFARIA

Bertsolariak: Iñigo Izagirre eta Iñaki Gurrutxaga
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte Asanblada

ol ZINE FORUM-A

"Sentido y sensibilidad"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea



22 ZAPATUA

13:00 MANIFESTAZIOA
"Errepresioa ez da irtenbidea"
Irteera: Plaza Haunditik

23 DOMEKIA

9:30 MENDI IRTEERA
Irimora (Zumarraga)
Irteera: Ikastolatik
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

25 MARTITZENA

19:30 BILERA

Gaia: Abertzaleen Plataforma Berria
Kultur Etxean

27 EGUENA

15:30 OSTEGUN GIZENEKO
KALEHRA

King-Kong-nen hasi eta Plaza handian
bukatuko da
Ondoren, dantzaldia

19:30 KORRIKAREN AURKEZPENEA
Kultur Etxean



28 BARIKAKUA

"/ 9:30 I.BEREZIARTUA MUSIKA
ESKOLAKO TALDE
INSTRUMENTALEN
KONTZERTUA
Musika Eskolako auditorioan
Elgoibar Xiberoarekin auzolanean

22:30 ZINEMA ITSUA
Kultur Etxean
Antolatzailea: Sinuose kolektiboa



"Chibbioren bidaia"

Zuzendaria: Hayao Miyazaki.

2002ko Berlinaleko Urrezko Hartza lortu zuen marrazki bizidun film bikain honek. Adituek diotenez, Miyazaki zuzendariak aurrerapausu nabarmenak eman ditu animaziozko tekniketan. Dena dela, oso gutxi jotzen du ordenagailuaren erabilpena eta estilo propioa sortzea lortu du. Azpimarratzekoak dira bere laneko marrazkien neunitasuna eta bestetik sakontasun kontzeptuala.

IKUSKIZUNAK

Atxutxikaraokea

Urtero legez Atxutxiamaikea eta GAZ-T aisialdi taldeek Atxutxikaraokea antolatu dute. Martxoaren lehen, zapatuan izango da zita 17:00etatik 19:00etara Plaza Handian. Play-back-a, opariak eta karaokea izango dira. Play-back egin nahi duzuenok, Elgoibarko Izarrara eraman beharko duzue zinta aurrez.

IKASTETXEAK

Postgradu ikasketak IMHn

Datorren martxoaren 14an, barixakuan, Lan Prebentziorako erdi-mailako teknikaria izateko postgradua hasiko da IMHn, ostiraletan 14:30etatik 19:30etara eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. Kurtsoa 300 ordutakoa izango da eta abenduaren 20an bukatuko da. Informazio gehiago behar duenak IMHra 943 74 82 70 telefonora dei egin dezake.

EUSKARA

Korrika 13.aren aurkezpena

Datorren ostegunean, otsailaren 27an, 13. Korrikaren aurkezpena izango da Kultur Etxean iluntzeko 19:30ean. Aurtengo Korrika jadanik prest dago, eta "AEKrekin herri bat geroa lantzen" lemapean datorkigu. Apirilaren 4an Mauletik irten eta 9 egunetan Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, apirilaren 13an Iruñean bukatuko da. Korrika prestatzen lagundu nahi duten herritar guztiak gonbidatuta daude, ostegunean egingo den aurkezpena.

BILERAK

Abertzaleen plataforma

Elgoibarren Abertzaleen Plataforma berri bat sortzeko bilera martitzenean, otsailaren 25ean, izango da Kultur Etxean. Bilkura arratsaldeko 19:30etan hasiko da. Ezkertiar eta abertzale guztiak daude gonbidatuta.

DEIALDIAK

Eskolaurreko umeentzako liburutegia

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, txikiak liburutegira etortzera animatzeko ekintzak antolatzen ari da Udal Liburutegia, liburutegiarekin lehenengo harremana izan dezaten. Txikiteka eskolaurreko umei zuzenduta dago. Lehenengo saioa otailaren 27an, ostegunean, izango da; 2 eta 3 urteko umeentzat 17:00etan eta 4 eta 5 urteko umeentzat 18:00etan. Gaia animalien ingurukoa izango da.

MANIFESTAZIOAK

"Errepresioa ez da irtenbidea"

Errepresioaren Aurkako Plataformak "Errepresioa ez da bidea" leloa izango duen manifestazioa antolatu du. Zapatu honetan, otsailaren 22an, hasiko da manifestaldia 13:00etan Plaza Handitik. Antolatzaileek baimendutako manifestaldia dela esan digute eta lemarekin ados dauden guztiak gonbidatu nahi dituzte bertan parte hartzera.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"The Ring"

21, barixakua: 22:15

22, zapatua: 19:30-22:15

23, domekia: 19:30-22:15

24, astelehena: 22:15

"Chihiroren bidaia" (Zine Kluba)

23, domekia: 16:30

25, martitzena: 21:30

"Los espigadores y la espigadora"

(Zine Kluba)

27, eguena: 22:15

"Al limite de la verdad"

28, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

21, barixakua: 19:30-22:15

22, zapatua: 17:00-19:30-22:30

23, domekia: 17:00-19:30-22:30

24, astelehena: 19:30-22:15

25, martitzena: 19:30-22:15

26, eguaztena: 19:30-22:15

"Amigas a la fuerza"

21, barixakua: 19:30-22:15

22, zapatua: 17:00-19:30-22:15

23, domekia: 17:00-19:30-22:15

24, astelehena: 19:30-22:15

25, martitzena: 19:30

26, eguaztena: 19:30



"The ring"

Zuzendaria: Gore Verbinski.

Antzezleak: Naomi Wats, Martin Henderson, David Dorfman.

Kaleko beste legenda bat gehiago zirudien istorioa ikertzen hasi zen Rachel Keller kazetaria, fede handirik gabe. Bideo zinta misteriozko bat ikusten duten denek heriotza iragartzen duen telefono deia jasotzen dute astebete lehenago. Lau gaztek bideoa ikusi eta handik astebetera heriotza aurkituko dute. Rachelen kuriositatea piztuko du zorigaiztoko pasarte honek eta bideo zinta ikustea da bere nahia.

N



A

ste honetako erretratu zaharra arrantzarako zaletasun handia daukan elgoibartar batek laga digu. Erretratua Ondarrun aterata dago, 1962.

urtean. Eibarko Diana Elkarreak antolatutako arrantza lehiaketa ospatu zen egun honetan Ondarrun. 400 pertsona inguruk hartu zuten parte bi txandatan banatuta, eta argazkian ikusten dugun Elgoibarko koadrila honek irabazi zuen lehiaketa. Gogora ditzagun zein diren argazkian azaltzen direnak. Zutik, ezkerretik eskumara: Javier Eizagirre (t), Adolfo Lobete, Fernando Galarza (tolosarra), Jose Jaio, Luis Fernandez (t), Rafael Kortaberria, Pako Egaña (t) eta Saturnino Marcos.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: Alfredo Arrillaga (t) eta Amador Gonzalez (t).



ESKERTZA

2003ko otsailaren 13an, 68 urte zituela hil zen **JAVIER ARRIOLA LIZARRALDE**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko otsailaren 10ean, 76 urte zituela hil zen **DOROTEA ARRIOLA ARRIOLA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Elxe barruko arotz-lanak

Lurra

Proiektu integralak egurrean

Igor isasmendi
ra



Lekuz aldatu gara!



Santa Klara, 28 behean

Tel. 943 74 40 50 Faxa. 943 74 30 86
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ATEAK

LEIHOAK

EGURREZKO SABAIK

ARMAIRU ENPOTRATUAK

EDOZEIN MOTATAKO ZORUAK

TARIMA ARTISTIKOAK

BARANDAK

BIGA FALTSUAK etab...

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

San Frantzisko, 43 -1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

1 0:00etatik-1 2:30era

1 5:00etatik-20:30era



Ego Gain, 4 behean
(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 455 20600 EIBAR

GREIBIOEN GIDA

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
Tr 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
'a 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
Ir 943 74 34 90

LURRA

Santa Klara, 28 Behea
"rr 943 74 40 50

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
"Er 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
17 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
zr 943 74 03 96

ERREFORIBIAK eta PROIEKTUAIt

ETXEKIT

Antonio Arrillaga, z/g
IT 943 74 43 47

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
93 943 74 17 61
1r 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
Tr 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
Tr 943 75 50 62
s" 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
17 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
1r 943 74 07 89
11 608 14 30 40

PINTIIRAK=

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
Tr 943 74 15 52
17 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
11 943 74 04 40
Tr 607 74 04 40

PROIEKTUGILEAK

JESUS M¹ GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
zr 670 41 20 73

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
17 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
zr 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
"er 943 74 09 02
zr 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
z' 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
tr 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
"zr 943 74 29 87
Tr 679 19 77 47

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabilioia
Tr 943 74 30 94